

## Landare zorrien aurkako erremedio naturalak

Urtearen, laborearen eta honen erabileraren arabera eta kontrakoa pentsa genezakeen arren, landare-zorriak ez dira intsektu sinotikiak. Horregatik, ez da ezohikoa izaten tomate, alberjiniak eta lekaleen artean (lekak, babarrunak,...) intsektu hauek aurkitzea.

Pixkanaka-pixkanaka, naturaren oreka hauskorra ezagutzen goazenez, horrenbeste kezkatzen gaituen bizidun txiki hauen funtzionatzeko moduak ere ezagutu behar ditugu. Kontuan izan behar dugu kolore guztietako landare-zorriak daudela, momentu batzuetan fekundaziorik gabe ugaltzen direla eta azak, luzokerrak, alberjiniak edo babarrunak erasotzen dituztela. Hostoaren azpian azaltzen dira beti; izan ere, hori da tokirik irisgarriena bere ezten zorrotzentzat; bertan trukutzen baitira O<sub>2</sub> eta CO<sub>2</sub> eta horretarako, landareek zelula-horma meheagoak izaten dituzte.

Intsektu hauei aurre egiteko, aurreko artikulu batean aipatu genuen bezala, hainbat produktu komertzial ditugu, baina, zer etxeko erremedio erabil genezake? Argi izan behar dugu lehendabiziko tresna prebentzioa dela eta horretarako, intsektu hauen presentzia denboraz aztertu behar dugula eta ahal izanez gero, efektu nardagarria duten etxeko errezetak erabiliko ditugu. Adibidez:

**Asentsio-belar infusioa:** Asentsio belarrarekin infusio bat egiten da (100 gr litroko) eta ondoren, %20an diluituta erabiliko dugu. Giro-tenperatura lortu arte hozten utziko dugu eta gero, landarea lainoztatuko dugu. Landare zorriak desagertzen ez badira, bestelako erremedioak erabili beharko ditugu, adibidez, baratxuria oliotan beratuta.

**Arabarba uretan beratuta:** zurtoinik gabeko 500 gr arabarba-hosto 3 litrotan beratzen utziko ditugu 24 orduz. Jarraian, hiru tratamendu egingo ditugu 3 egunetan zehar.

Erremedio nardagarriek ez badituzte hasierako landare-zorri horien garapena kontrolatzen, bibliografian hainbat errezeta aurkituko ditugu eta horien artean, honako hauek izan daitezke interesgarrienak:

**Baratxuria oliotan beratuta:** 100gr baratxuri ale xehatu eta 12 orduz oliba oliotan beratuta. Ondoren, litro bat ur gehituko diogu eta iragazi egingo dugu iragazki fin batetatik. Jalkitzen utziko dugu astebetean. %5ean diluitu eta lainoztatzaile txiki batekin landarea ondo buztiko dugu, bereziki, hostoen azpiko aldea eta landare-zorrien gunek.

**Zolda-belarraren egosketa:** Zolda-belarrarekin egosketa egingo dugu (litro bat uretan 8 hosto xehatu eta 20 minutuz egosi). Jalkitzen utziko dugu 12 orduz eta iragazi ondoren, dagoenetan erabili.

Espero dezagun eskuragarri ditugun erremedio hauekin landare-zorriak kontrolatzea eta esango diguzue, foroaren bidez, nolako emaitzak lortzen dituzuen.

## Los pulgones me tienen manía

Los pulgones son una clase de insecto que no son maniáticas, a pesar de que podamos llegar a pensar todo lo contrario según vaya el año, según el cultivo y según el manejo del mismo. Por todo ello nos es raro encontrarlos en cultivos como el tomate, la berenjena además de como todos sabemos en el grupo de las leguminosas (vainas, alubias ...).

Como poco a poco vamos conociendo los delicados equilibrios de la naturaleza también debemos de ir conociendo mejor la forma de funcionar de esos diminutos seres vivos que tanto nos inquietan. Debemos de tener en cuenta que tenemos pulgones de todos los colores, que hay momentos en los que se reproducen sin necesidad de fecundación y que pueden atacar tanto a berzas como a pepinos, a berenjenas como a las alubia. Siempre aparecen debajo de las hojas que suele ser la zonas más accesible para sus afilados estiletes al ser zonas de intercambio de O<sub>2</sub> y CO<sub>2</sub> para lo cual las plantas suelen tener paredes celulares más finas.

Para hacer frente a estos insectos tenemos productos comerciales como comentamos en un artículo anterior, pero ¿De qué remedios caseros disponemos?. Hemos de tener claro que la prevención es la primera herramienta y que para ello hemos de observar a tiempo la presencia de estos insectos y a poder ser emplear recetas caseras de efecto repulsivo, por ejemplo:

**Infusión de ajeno:** Se realiza un infusión con ajeno a razón de 100gr por litro y después lo diluimos al 20%. Después de dejarlo enfriar hasta temperatura ambiente rociamos la planta. Si la presencia de los pulgones persiste será el momento de empezar a probar otros remedios como el macerado de ajo.

**Maceración con Ruibarbo:** Se dejan macerar 500gr de hojas de ruibarbo sin los tallos en 3 litros durante 24 horas. A continuación se adquiere el macerado en puro y se realizan tres tratamientos durante tres días.

Si los remedios repulsivos no controlan el desarrollo de las primeras hornadas de pulgones, en la bibliografía se pueden encontrar multitud de recetas donde las más interesantes pueden ser:

**Macerado de ajo:** Se pican 100gr de dientes de ajo, después se maceran en dos cucharas soperas de aceite de oliva durante 12 horas. A continuación verter 1litro de agua y después colar, presionando sobre un colador fino. Dejar reposar durante una semana. Diluir después al 5% y tratar la planta con una pequeña pulverizadora mojando bien y sobre todo el envés de las hojas y los focos de pulgones.

**Decocción con consuelda:** Realizar la decocción con hojas de consuelda (hervir 8 hojas picadas en 1 litro de agua durante 20 minutos). Dejar reposar durante 12 horas y después de filtrar emplearlo tal cual, en puro.

Esperemos que con estos remedios al alcance de todos os hagáis más fuertes ante estos seres e idnos comentando como os van resultando por medio del foro.